

## FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Proiektu batek ondo funtziona dezan elementu garrantzitsuenetarikoa norberaren abilezia eta esperientziak dira. Taldean ondo elkar ulertzen dugunez, norberaren abileziak ahalik eta gehien aprobetxatu ditugu, taldekide bakoitza lanaren esparru desberdin batera bideratuz. Hau da lan egiteko erarik onena, baina oso garrantzitsua da horrelako lan baten aurrean, nahiz eta lan berdinean bakoitzak ardura desberdina izan, denok komunikazioa mantendu eta elkarri lagundutzea.

Gure proiektua burutzeko, bakoitzak bere trebeziak eta esperientziak baloratu eta mahaigaineratu genituen, zer ideiarekin jarraituko genuen jakinda. Norberak zer abilezia dituen jakitea oso garrantzitsua da, hauen arabera taldean norberak rol desberdin bat hartu duelako. Adibidez, gure taldean informatika sail baten egondako ikasle bat daukagu eta horrek egin ditu aplikazioaren garapena, prototipoa sortu eta martxan jartzearen ziurtapena. Aldez aurretik konpetentzia informatikoak dituen ikaskide bat izatea aplikazio bat sortzerako orduan oso garrantzitsua da, berak zuzenduz besteek ahal duten laguntza ematen diotenean proiektua azkar eta era egokian aurreratzen baita.



Erabili dugun baliabiderik garrantzitsuenena Just in Mind izan da. Webgune honetan gure taldekide bat arduratu da Phoneblock aplikazioaren prototipoa sortzeaz. Hainbat erreminta eskeini digu aplikazio honek, gure proiektuarekin aurrera jarraitzea ahalbidetuz.

